

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maritxu Arrondo Rivas

*Donostia,
Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



Uliako Miraill baserrian jaioa,
inguruetakoz zaharrenetakoa.
Aita bertakoa zen; ama
Donibane Lohizunen jaio,
baina Lesakan bizi izandakoa.
Amonak "gobera" egiten zuen
hoteletarako; astoarekin
joaten zen garbitzera,
Barrakara. Aitak asto-karroan
banatzen zuen gobera;
lozezaina ere bazen,
Herrerako etxalde batzuetan.
Sei senide ziren. Bi neskak
etxeko kargu egin ziren. Fruta
saltzera ere joaten ziren,
dendara. Maritxu etxera
ezkondu zen, eta bi seme
ditu. Maizter izan ziren urte
askoan, baina orain
etxejabeak dira. [Anttoni](#)
ahizparekin batera egin diogu
elkarrizketa Maritxuri
(irudian, eskuinekoa).

Zintak

DON-058

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-11-11
- **Iraupena:** 89 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Miraill baserria

- **Erref:** DON-058/002
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:01:37. **Bukatu:** 00:03:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

Beraien jaiotetxeak Miraill izena du. Izen horren jatorria, begiratoki baten modukoa delako da. Antzinatasun handiko etxea da, inork ez daki noizkoa den, 700 urtetik gora dituela bai. Aitaren aldeko familia zen bertakoa.

2. "Asto pardelak": arropak garbitu eta lisatu

- **Erref:** DON-058/004
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:07:14. **Bukatu:** 00:11:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Aiton-amona beraien etxean bizi ziren, baina aitona ez zuten ezagutu. Amona astoarekin, Barrakara, itsaso aldera, joaten zen "asto pardelak" egitera. Hoteletako arropak garbitzen zituen, baserriak ez baitzuen bizitzeko nahikoa ematea. Gero beraien aita asto-gurdian filarmonika jotzen joaten zen garbitutakoa banatzera. Amonaren ahizpa bat arduratzen zen amonak garbitutakoa lisatzeaz. Lisaburdina elektrikoa zuen.

3. Ulia asko aldatu da

- **Erref:** DON-058/008
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:18:56. **Bukatu:** 00:20:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Ulia ingurua izugarri aldatu da. Lursail handiak dituzte eta fruta-arbola asko zegoen.

4. Uliako tranbia eta transbordadorea

- **Erref:** DON-058/010
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:20:23. **Bukatu:** 00:23:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

Ulia gaina oso ikusgarria zen. Tranbia Ategorrietatik ateratzen zen begiratokiraino. Han merenderoa, hotela eta abar zeudenez, jendea transbordadorean sartzen zen. Beraiek ez zuten transbordadorea martxan ezagutu. Uliako hotela, errota, "Balleneros"... dena desagertu da. Han zegoen ia dena bota zuten eta ez dago lehenagokorik.

5. Ulian desagertutako etxeak

- **Erref:** DON-058/011
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:23:18. **Bukatu:** 00:26:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Uliara joateko errepide desberdinak daude: San Pedrora, Trintxerpera, Mirakruzeko gainera, Uliako pasealekura... Uliako baserri gehienak desagertu dira. Beraiena eta Mendiola baino ez daude zutik. Desagertutako baserriak zeintzuk diren aipatzen dute. Horietako baserri batean txondorra, ikatza, egiten zuten. Iradi tabernara jende asko joaten zen, gainera bertatik pasatzen zen tranbia. Martin izeneko taberna bat ere bazegoen.

6. Uliako sorgina

- **Erref:** DON-058/012
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:26:49. **Bukatu:** 00:29:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Uliako etxe bati "La bruja de Uli" deitzen zioten bertan bizi zen emakumeak ezizena hori zuelako. Emakume ezagun horrek gertatuko ziren gauzak aurreikusten omen zituen, bertako gizon bati minbizia zuela asmatu zion. Oso ezaguna zen, telebistan ere agertzen zen.

7. Ategorrietako dendak

- **Erref:** DON-058/015
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:31:22. **Bukatu:** 00:32:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Erosketak egitera Ategorrietara joan behar izaten zuten. Orain ez dago lehenagoko dendarik. Arrain-saltzaileak ez ziren Uliara igotzen, baina bai Ategorrietara.

8. Baserritik ateratzen zuten jana

- **Erref:** DON-058/016
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:32:57. **Bukatu:** 00:34:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Baserriko baratzea sasoian sasoiko landatzen eta ereiten zuten, betiere etxerako. Behiak ere bazituzten eta esne pixka bat ere saltzen zuten.

9. Eskolakideek ere gogor egiten zien

- **Erref:** DON-058/020
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:37:09. **Bukatu:** 00:38:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Ategorrietako eskola publikora joan ziren biak. Francoren alde kantari jartzen zituztela dio Maritxuk, Euskaraz eginez gero haserre egiten zien eta dena egin behar zuten erdaraz. Beraiek baino neska koskorragoak beraiek baino espabilatuagoak ziren. Panotxak (artoa) eraman behar izaten zieten haiei, gose garaiak ziren.

10. Eskolan ezin euskaraz eta etxean ezin erdaraz

- **Erref:** DON-058/021
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:38:39. **Bukatu:** 00:39:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Ategorrietako eskolan dena egin behar zuten erdaraz. Etxean dena egiten zuten euskaraz, amak ez zekien erdararik. Aitak ea belarri motzak ziren galdetzen zien erdaraz entzunez gero.

11. Jolasterakoan euskaraz arituz gero, gainerakoak haserre

- **Erref:** DON-058/023
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:40:13. **Bukatu:** 00:41:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskola garaian askotan ez ziren jostatzen gainerako umeekin; izan ere, beraiek euskaraz egiten zuten eta haserretu egiten zien. Inguruko etxeetako umeek ere erdaraz egiten zuten hitza. Anttonik dio ez zutela jostatzeko asti askorik, beti zegoen lana-eta.

12. Errekara ur bila eta arropak garbitzera

- **Erref:** DON-058/024
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:41:21. **Bukatu:** 00:43:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Umetan lan desberdinak egiten zituzten baserrian. Esate baterako, ura buru gainean eramaten zuten balde batean: edateko, garbitzeko... Arropari etxean xaboia eman eta gero errekarra joaten ziren garbitzera. Elkarriketa garaian, erreka hura tapatuta zegoen. Bainatu ere bertan egiten ziren.

13. Umetan mendira lanera

- **Erref:** DON-058/026
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:43:35. **Bukatu:** 00:45:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Ahuntzarekin mendira joaten ziren sarri umetan. Egur bila ere joaten ziren. Nebak moztu zuen eta beraiek ekarri. Jende asko joaten zen egur bila mendira.

14. Ategorrietako jaiak

- **Erref:** DON-058/033
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:55:55. **Bukatu:** 00:57:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Inguruko jairik onenak Intxaurrondokoak ziren, Diegok jotzen zuen akordeoia. Ategorrietan urte gutxitan baino ez ziren ospatu jaiak; beraien nebak asto-lasterketak parte hartu zuen behin eta lortu zuen bai denek berari begiratzea. Musika bukatu eta ordu batean etxera joan behar izaten zuten.</p>

Transkripzioa

- Hemen inguruan ze festa izaten zian?
- Anttoni: Intxaurrondo...
- Maritxu: Intxaurrondo azkena.
- A: Azkena Intxaurrondo. Hoben-hobena Intxaurrondo. Ategorrietan bazian...
- M: Hoben-hobena. Aiii! Diego horrek jotzen zuen akordeoia, kordeon hori eta...
- A: Diego.
- Diego?
- A: Diego. Hura akordeona jotzen zuna. Ategorrietan ´e hasi zian.
- M: Hasi zian, baiño...
- A: Baiño zenbat urte ingo zuten, pare bat edo hiru bat?
- M: A! Gure anaia astuakin karreran ateratzen zan.

- Karrera iten zan? Asto-karrera?
 - M: Bai, asto-karrera.
 - Ategorrietan?
 - M: Bai. Ta behin batian, saltzen nola aitzen dia karameluak-eta umientzako? Astua ta dena han sartu!
 - A bai?
 - M: Ta jende guziya parrez.
 - Normala!
 - M: Parrez.
 - Eta ze gehio egoten zan hor? Ategorrietako jaiak ze... noiz...?
 - M: Pelota izaten zan, pelota. Eta gero musika. Eta hori...
 - A: [Eta] jaisten bagiñan, ordubitako etxea.
 - Ordubitako etxea?
 - A: Ordubata. Ordubata.
 - M: Ordubata, bai. Gu [...] zanian musika, etxera.

15. San Juan suak

- **Erref:** DON-058/034
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:57:08. **Bukatu:** 00:59:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

San Juanetan su handia egiten zuten etxean eta oso ezaguna zen. Behin jendeak pentsatu zuen etxea erretzen ari zela eta beste behin gizon bat zegoela erretzen, baina txorimaloa zen.

16. Hil ondorengo arrosarioa eta lutoa

- **Erref:** DON-058/038
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:04:01. **Bukatu:** 01:05:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Beraien amona hil zenean, gau osoan arrosarioa erreztatzen egon ziren eta hurrengo egunean eraman zuten gorpua. Hildakoa ohean zegoela, bere inguruan batzen zirenak denak. Lutoa eramatea zen ohikoa.

17. Igandetan oinetako hobeak

- **Erref:** DON-058/046
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:15:00. **Bukatu:** 01:16:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Alpargatak eta zapatak erabiltzen zituzten. Igandetan pixka bat hobeago zeudenak janzen zituzten. Pasaiara, Erreteriarra eta Igeldora ere joaten ziren gaztetan.

18. Arroketara lapatara

- **Erref:** DON-058/049
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 01:18:49. **Bukatu:** 01:19:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza

Laburpena:

<p>Gurasoak lapa bila joaten ziren arroketara. Arrozarekin, zopa egiteko edo saltsa berdean jaten zituzten.</p>

19. Alemaniarrak astoari argazkia ateratzen

- **Erref:** DON-058/051
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:21:22. **Bukatu:** 01:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gerra garaian, behin Maritxu bere lehengusuarekin joan zen astoz ur bila. Soldadu alemaniarrak topatu zituzten kanoiak dauden inguruan eta astoa lotu eta beraiek ezkutatu egin ziren. Alemaniarrak gerturatzerakoan, kamioitik jaitsi eta astoa ostuko zutela uste zuten, baina ez: jaitsi eta astoari argazkiak atera zizkieten.

20. Gerrako tiroak etxeraino

- **Erref:** DON-058/052
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:23:00. **Bukatu:** 01:24:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra garaian etxean egon ziren. Koltxoiak jartzen zituzten leihoetan tiroak San Markos aldetik heltzen baitziren. Lo egitera goragoko beste etxe batera joaten ziren.

21. Goserik ez

- **Erref:** DON-058/054
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:24:40. **Bukatu:** 01:26:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra garaian eta gerraostean etxean zutenarekin posible zuten bizitzea eta hortik jatea. Fruta ere ugari zuten.

22. Errenta sagarrekin ordaindu

- **Erref:** DON-058/057
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 01:27:59. **Bukatu:** 01:28:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Errenta sagarrekin ordaintzen zuten, zaku batean eramaten zizkien etxeko jabeari. Erren

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com